

**Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian,
1926'ko Lotazila'ren 21'an.**

Ementxe aipatzen diran euskaltzain jaunak batzaraldia dotoz: Azkue maipuru, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Etxegarai, Lakonbe ta euskaltzain-ordekoak Muxika ta Garitaonandia; urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Aita Intza'k Napafoa'ko euskeraren aldeko berriak ekañ dizkigu ta Euskaltzaindiak gogorik onenaz entzun dizkiyo.

II.—Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat biala digu, erderazko izen onekin: *Composición gramatical vasca*. Irakuñ ondoren, Euskaltzaindiak onetsi du ta *Euskeran* argitaratuko da.

III.—Eguskitza jaunak Intxauspe'ren *Imitazio*-netik ateratako itzak ekañ dizkigu, orain eskuartean darabilkigun Iztegiaren ornigari.

IV.—Aita Intza'k alde bat eta beste bildu dituan itz eta esakerak irakuñ dizkigu. Abek ere gordetzea erabaki da esandako Iztegiaren ornigari ere.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

**Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian,
1926'ko Lotazila'ren 22'an.**

Aureko batzaraldian aipatu diran euskaltzain ta ordekoak dotoz eta urgazletatik Lekuona jauna. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Azkue jaunak Lardizabal zanaren «Testamentu zar eta beriko kondaira=kondaira»'tik adizkera batzuek berezitu ditu ta zeazkiro aztertū dira.

II.—Azkue berak bere *Morfologia*-ren irakurpena jaraitu du, Gipuzkoa'ko aditzari dagokiyona irakuririk.

III.—Euskaltzaindiak ikusi du alegiya *Academia Española*'k emendik afera beste eletzain batzuek izango dituela, lengoez gain, ta bi noski Euskerari dagozkiyokenak. Gobernuaren erabakiya izan da. Euskaltzaindiak ondo edo begi onez ikusi du auxe ta alaxe adierazten du. Bañan Olabide jaunak ez dama-yo erabaki oni bere baimenik.

IV.—Julien Vinson jaunaren ilberiya Euskaltzaindiak berebiziko saminez entzun du. Ementxe adierazten du bere naigabea ta ildakoaren sendiyari aitortzen diyo.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldiya.

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Ilbeltza'ren 27'an.

Bildu diran euskaltzainak abek dira: Azkue maipuru, Urkijo, Lande'etxe, Eguskitza, Olabide, Lhande, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta Ormaetxea ordekoa.

I.—Yabon-sailari dagozkiyon gai batzuek autuan jafi dira ta batez ere sorozpideai dagozkiyena: Bizkai-Aldundi Au'rezki-Kutzak urteko mila peseta emango dizkiyo au'ferantzean Euskaltzaindiari; ta auxe dala-ta *Euskaltzaindiaren ongile* izendatuko da. Gipuzko-Aldundiyak ez du sorozpiderik gutxitzen: orain artean bezela, 10.000 peseta emango dizkigu.

II.—Aita Intza'k ekari dizkiyo Euskaltzaindiari 3.000 papertxo; ta papertxo oyetan euskal-itz-be'i edo oyen aldakuntzak, Azkue'ren Iztegian ez daudenez, ezarfiyak daude. Aita Intza'k bear duen baimenez, da-